

# Euskararen kalitatea

Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako

*Euskararen Abolku Batzordea Euskararen Abolku Batzordea Euskararen Abolku Batzordea  
Euskararen Abolku Batzordea Euskararen Abolku Batzordea Euskararen Abolku Batzordea*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

# Euskararen kalitatea

## Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

**Euskararen** kalitatea : zertaz ari garen, zergatik eta zertarako. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

or. ; cm

Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: " La calidad en el euskera : razones y objetivos de una definición necesaria"

ISBN 84-457-2145-3

1. Euskara-Normalizazioa. I. Euskadi. Kultura Saila. II. Izenburua (gaztelania).  
809.169-06

**Argitaraldi:** 1.a, 2004ko uztaila

---

**Ale kopurua:** 2.000

---

**©:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

---

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

---

**Internet:** [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

---

**Fotokonposizioa:** E.P.S., S.L.  
Herminio Madinabeitia, 18 - 3. pab. - 01006 Vitoria-Gasteiz

---

**Inprimaketa:** Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

---

**ISBN:** 84-457-2145-3

---

**Lege gordailua:** VI-320/04

## Aurkezpena

**E**uskararen Aholku Batzordea hizkuntza-normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko harreman-organoa da. Egitekoen artean ditu, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalkuntzari buruzko gaiak aztertzeko eta ikertzeko eta euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Eusko Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.

Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atalak 2003ko matxoaren 27an izandako bileran, batzorde-atal horrek langai izan ditzakeen hainbat gai identifikatu zituen eta, besteak beste, Euskararen kalitatea deiturikoa jo zuen lehentasunez jorratu beharreko zatia.

Halaber, erabaki zuen, , gaiaren inguruko mapa orokorra egitea, esparruak eta atalak finkatzeari begira. Honekin batera, hainbat kidek proposatuta, Joserra Garzia jaunari, Kike Amonarriz jaunari eta Andoni Egaña jaunari eskatu zitzaizkien horren gaineko dokumentua idaztea. Batzorde-atalean finkatu zen prozeduraren arabera, oinarritzeko txostena mahai gainean jarri, eztabaidatu eta osatu egin zen.

EUSKARAREN KALITATEA, ZERTAZ ARI GAREN, ZERGATIK ETA ZERTARAKO izeneko argitalpena beraz, Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atalak 2003. urtean egindako azterketaren eta hausnarketaren emaitza da.

Hona hemen, ba da, Euskararen Aholku Batzordeak euskararen kalitatearen inguruan euskal herritar guztiei, eta, bereziki, eragile publiko zein pribatuei zuzentzen dizkien aholku-proposamenak, lagungarri izango zaizkielakoan.

**Euskararen Aholku Batzordea**  
Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekaina

Aurkibidea



Sarrera .....	13
Aurrekariak: kantitatetik kalitatera .....	17
Kalitatea zertan den .....	21
Hizkuntz kalitatearen inguruko datuak eta hausnarketak .....	31
Hizkuntz kalitatean eragiten duten esparruak .....	43
Proposamenak eta lan ildoak .....	51



Sarrera



**E**usko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeak hala eskatuta euskararen kalitateari buruzko txosten hau lantzen hasi ginenean, berehala jabetu ginen hizkuntza kalitatearen kontzeptua bera argitu eta zehaztu beharko genuela nahitaez, beste ezertan hasterako.

Euskararentzat alor, eskualde eta hiztun berriak irabaztea izan da orain arteko kezka nagusia, eta hedatze lan horretan asko dago oraindik eginkizun. Oraintsu arte kezka ia bakar izan dugun horri, ordea, hedatzen ari garen euskararen kalitatearena gehitu zaio azken urteotan. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak<sup>1</sup> ere (EBPN: IV.3.15) argi eta garbi ezartzen du kalitatearena une honetako lehenetasunen artean:

#### IV.3.15. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

Euskarak berak ere eguneratu eta egokitu beharra du, jakina, gaurko premietara eta arlo nahiz eremu berrietara. Izan ere, eguneroko jardunean euskara lan-tresna eta komunikazio-hizkuntza dutenen beharra handia da. Hori dela eta, euskal lexikoa bateratzeko eta finkatzeko lan handia egin da Euskaltzaindiaren gidaritzapean, eta egiteke dagoena burutzeko, berriz, baliabideak jarri dira. Orain arte burutu den guztia informatizaturik da, bestalde. Euskararen corpusaz arduratzen diren erakundeek eta elkarteek duela gutxi arte ez zuten gaitasun-maila erdietsi dute, beraz.

Hala ere, norberaren hizkera ez da baztertu behar eguneroko bizitzatik, hizkuntza zuzenagoa eta egokiagoa erabiltzen baitu nor bere euskalkian. Besteak beste, ez dezagun ahantz, euskararen eta euskarazko baliabideen kalitatea hobetzeko apustua irabazi behar da urteotan.

Euskararen egoeraz alde edo moldez arduratzen direnen —edo garenon— artean kalitatea gero eta sarriago aipatzen den arren, ordea, ez dirudi denok gauza bera dugunik buruan "euskararen kalitatea" aipatzean. Aitzitik, bakoitzak bere erara ulertu eta erabiltzen du kontzeptua, eta horrela, bistan denez, nekez iritsiko gara elkar ulertu, diagnostiko zehatza egin eta arazoa konponbidean jartzeko hartu beharreko neurriak adostera.

Ohartzen gara, noski, "kalitate" hitza erabiltze hutsak albo kalte larriak sorraraz ditzakeela. Besteak beste, norbaitek uste izan dezake euskararen gramatika arauak guztiz eta erabat menderatu arte isilik egotea proposatzen ari garela hemen, eta horrek, jakina, bat baino gehiago atzendu egingo luke dakien euskara —ona, erdipurdikoa zein kaxkarra— erabiltzetik, eta horixe litzateke euskararen kalitateari egin genezaiokeen kalterik handiena. Txosten honetan, izan ere, euskararen kalitatea euskaraz komunikatzeko gaitasunarekin lotzen baitugu nagusiki: euskararen erabilerarekin, alegia, azken batean, argi eta garbi baitugu erabileraren delako hizkuntzaren kalitatearen oinarri.

"Euskararen kalitatea" diogunean zer esan nahi dugun argitu eta zehazten saiatu gara, beraz, txostenaren hasieran. Amaitu, berriz, hainbat lan ildo proposatuz amaitu dugu, amaiera hasiera baino ez delako usteak oraingo honetan erdia ustel izango ez duen esperantza eta uste osoan.

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila (1999): *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

**Aurrekariak: kantitatetik kalitatera**



Hiztun masa kritiko gutxieneko bat segurtatzea izan da, oraintsu arte, euskararen inguruko kezka nagusia.

- Horretara bideratu dira nagusiki hizkuntz politikak eta euskaltzaleen ahalegina oro har. Nekez kritika daiteke jarduera hori. Kantitaterik gabe, hiztun masa kritikorik gabe, alferrikako bitxikeria baino ez dira hiztun bikainak.
- Egin beharreko lana zen hori, eta, neurri handi batean, arrakastaz egin da, euskararen ofizialtasunari esker hizkuntz politika koherenteak ezartzeko modua izan den eskualdean behintzat (EAEn, alegia, gauzak okerrago baitoaz, tamalez, Nafarroan, eta are okerrago Iparraldean).

Egoera minoritarioan dagoen hizkuntzaren hedapenak berekin dakar hedatzen den hizkuntzaren "kalitate"aren galera nolabaitekoa. Galera horrek bi eragile mota ditu:

- Kanpokoak, normalizazio prozesu orori berez edo dagozkionak. EBPNek dioenez (4.4.15): Euskaldunen kopurua gehitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki.
- Barrukoak, orain arteko gure jardunbideari dagozkionak. Koldo Izagirrek<sup>2</sup> aspalditxo (1981ean) zioen bezala:

Lizardik baino prosa "hobeagoa" idazten du gaur edozein gaztek, baina inork ez du haren grazia... /... Mintza eta idazketa **korrekto** bat ahalegindu gara egiten, estilorik gabeko bat, jardun **neutro** bat, mintza eta idazketa **inuzentaren** bila. Eta beharrezkoa zen. **Bizitasuna** sakrifikatu behar zen **korrektotasunaren** truke, euskara biziko bazen.

Izagirreren hitzok 1981ekoak badira ere, esan liteke kalitatearen inguruko kezka ez dela 1997 aldera arte nagusitu.

- Esanguratsua da urte horretakoak izatea Ibon Sarasolaren "*Euskara Batuaren ajeak*"<sup>3</sup> eta Juan Garziaren "*Joskera Lantegi*"<sup>4</sup>. Aldez edo moldez, darabilgun euskararen kalitatea da bi lanotan kezka nagusia: lexikoa Sarasolarenean eta joskera Garziarenean.
- Komunikabideen jardunari begira egituratu izan da sarri kalitateari buruzko kezka (Euskaldunon Egunkaria, EITB, Tokian Tokiko Prentsa, Zubimendi-Esnal...).
- Azkenik, punta-puntako idazle eta pentsalariek ere beren ekarpena egin diote eztabaidari (Lertxundi, Saizarbitoria, Salaburu, Zuazo, Izagirre, Aranbarri...).

Badirudi, beraz, kalitatea dela gaur egun euskararen inguruko kezka nagusietako bat, nahiz kantitatean oraindik ere asko dagoen egiteko (hiztun, eskualde eta alor berriak irabazi beharra). Baina, oro har, nekez eztabaida liteke, hedatze lan horrekin batera, hedatzen ari garen hizkuntzaren kalitatea zorrotz zaindu behar dugula.

<sup>2</sup> IZAGIRRE, KOLDO (1981): *Euskal Lokuzioak*, hitzaurrea, XXII. Donostia: Hordago

<sup>3</sup> SARASOLA, IBON (1997): *Euskara Batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.

<sup>4</sup> GARZIA, JUAN (1997): *Joskera Lantegi*. Gasteiz: HAEE

**Kalitatea: zertaz ari gara?**





## Oharrak eta argibideak

"Kalitatea", kontzeptu lauso eta nahasia da hizkuntza kontuetan. Aski da kalitateaz dihardutenen lanak irakurtzea horretaz ohartzeko. Hona hemen "kalitate" hitzari eman izan zaizkion adiera zenbait:

- Bizitasuna da kalitatea. Aurkakoa, berriz, zuzentasun gramatikal hutsa (Izagirre, *Lokuzioak*<sup>5</sup>).
- Hizkera bero eta hurbilean dago kalitatea. Aurkakoa, hotz eta arrotza (Zuazo, *Sendabelarrak*<sup>6</sup>).
- Erraz eta ulergarri dena da kalitatekoa (Zubimendi eta Esnal, *Idazkera Liburua*<sup>7</sup>).

Guztiarekin ere, "kalitateaz" dihardugunean, arriskurik handiena zera da: hizkuntza kalitatea paradigmatic, gramatika hutsetik kontsideratzea. Tamalez, hori da, salbuespenak salbu, eskolan eta hedabideetan dabilen eredu.

- Hizkuntza kontuetan, ordea, kalitatea eraginkortasuna da, eta ez besterik, Koldo Mitxelena<sup>8</sup> argi eta garbi zioen bezala: "Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik, errua, behiala Axularrek zioenez".

Hizkuntza kalitatearen parametroak, beraz, ez daude hizkuntza barruan, kanpoan baizik.

- Hizkuntza, ezer izatekotan, tresna da lehenik eta behin: norberaren baitan eta inorengan eragiteko tresna. Horretarako balio ezean, alferrikakoak dira gainerako guztiak, paradigmak barne.
- Gazteei gagozkiela, euskarak ez badio balio gazteari bere barrua lasaitzeko eta bere kideengan emozioak eragiteko, euskara hori ez da kalitatekoa izango, zurtoina baino zuzenagoa edo "gatz larria" baino jatorragoa izanik ere.

Hizkuntzaren kalitatea eraginkortasunean jarrita, urrats handia egingo genuke, bide batez, motibazioaren alorrean.

- Hala eta guztiz ere, horrek ez gintuzke eraman behar kalitatearen gainerako alderdiak baztertzerik. Eraginkorraz gain zuzena eta jatorra bada, hainbat hobe.
- Kalitate integrala litzateke hori, eta horrek behar du izan, bistan denez, helburu. Euskara ona deituko diogu txosten honetan horri.

---

<sup>5</sup> IZAGIRRE, KOLDO: *op. Cit.*

<sup>6</sup> ZUAZO, KOLDO: *Euskeraren sendabelarrak*, Irun: Alberdania, 2000.

<sup>7</sup> ESNAL, PELLO ETA ZUBIMENDI J.: *Idazkera liburua*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1993.

<sup>8</sup> KOLDO MITXELENA, "Pro domo", in *Koldo Mitxelena entre nosotros*, Irun: Alberdania, 2001, 328-9

## Euskararen kalitatearen hiru mailak

Kalitatearen alderdi guztiak eredu bakarrera biltzen hasita, Ibon Sarasolak<sup>9</sup> proposatutakoa iruditzen zaigu eredurik baligarriena.

- Sarasolak hiru maila aipatzen ditu hizkuntzaren kalitatearen baitan: zuzen, on, egoki. Lehen bere horretan hartuko diogu Iboni. Bigarreanean, ON hitza erabili beharrean JATOR hitza erabiliko dugu, ideia hauek han-hemenka azaltzerakoan, "Euskara Ona" kontzeptuak sortu dituen gaizki ulertuak saiheste aldera. Egokitasunari dagokionez, aldiz, hitza hartuko diogu Sarasolari, edukia aldaturik. Hauek lirateke, beraz, euskararen kalitatearen hiru mailak:

<i>Zuzentasuna</i>	Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara da zuzena, arau horiek aplikagarriak diren egoera komunikatiboetan. Ortografia, joskera, ahoskeran... maila askotan daragi zuzentasunak.
<i>Jatortasuna</i>	Euskararen senaren edo usadioaren arabera euskara jatorra. "Entrenatzailea zirkunstanzia aurpegiarekin atera zen aldageletatik" euskara zuzena izan liteke akaso, baina ez da jatorra. "Entrenadorie halamoduzko aurpegiaz urten zeban bestuarixotik", aldiz, jatorra da, nazio mailako egoera formaletarako zuzena ez izan arren. Ideala, esan dugun moduan, zuzena eta jatorra izatea litzateke.
<i>Egokitasuna</i>	Bere xederako egokia dena da euskara egokia, eta, Mitxelenak zioen bezala, hizkuntzaren xedea eragitea da batez ere. Egokitasun kontzeptu honetan txertatzen dugu, beraz, eraginkortasunaren alderdia, nahiz jakin batzuek (Esnal eta Zubimendik, esaterako) guk "jator" esaten diogunari esaten diotela "egoki".

- Bereizkuntza lexikoaz haratago, euskararen kalitatea bermatzeko ahaleginean irizpideak argitzeko modua eskaintzen digu eredu honek, eta komeniko litzateke horren inguruan adostasun zabala lortzea.

Orain arteko ahaleginetan, oro har, zuzentasunari eman izan zaio lehentasuna, eta hurrena jatortasunari.

- Horrek, besteak beste, eredu estandarretik urrutiko hizkera darabilten hiztun egoki askoak konplexuz betetzeko balio izan du, eta bada ordua Saizarbitoriak<sup>10</sup> dioena aintzat hartzeko: "Esan dezadan, bide batez, ez zaidala zilegi iruditzen hizkuntza jatorraren maisu askok hiztun **traketsarekin** erakusten duten nagusikeria, publikoki erakundeetatik eta hedabideetatik zabaltzen den euskara kontrolatzeko, arrazoi handiz, beharko litzatekeen zorroztasun kritikoa, euskaldun arruntari aplikatzen baitiote, baita banakako harremanetan ere; bi gauza gutxienez kontuan hartu gabe: alde batetik, sarritan, euskaldun traketsak bere maila hori lortzeko egin behar izan duen ahalegin pertsonala; eta bestetik, ezinbestekoa dela euskara normaltasunez erabili ahal izateko hiztunen euskara, ongi edo gaizki erabiliko dutenen masa kritikoa lortzea, hots, mundu guztia hitz egitera animatzea".

<sup>9</sup> SARASOLA, IBON (1997) *Herri Komunikabideak, III. Jardunaldiak*. Arrate. Arco

<sup>10</sup> SAIZARBITORIA, RAMON (1999): *Aberriaren alde (eta kontra)*, Irun, Alberdania.

- Kontua bereziki larria da eskolan eta komunikabideetan. Eskolaz diharduela, Lertxundik<sup>11</sup> zera dio, esaterako: "Hizkuntzaren **deskribapena** lehenetsi dugu hizkuntzaren beraren erabilera **espresiboaren** kaltean".

Zuzentasunaren eta jator-tasunaren aldean, kontzeptu aldakorra da egokitasunarena.

- Izan ere, komunikazio egoera bakoitzak bere egokitasun propioa behar du, eta du. Egoera jakin baterako ezinago egokia den hizkera zeharo desegokia izan liteke —eta izaten da— beste baterako. Hain zuzen hori eta ez besterik da hiztun —eta hizlari— egokiaren gaitasun bereizgarria: al-dian aldiko egoeran hartarakoxe egokia den hizkera erabiltzen jakin eta asmatzea.
- Asko ez ezik askotarikoak dira egokitasunean daragiten faktoreak, eta hizkuntzaz kanpokoak dira, gainera, den-denak. Hona hemen faktoreotako garrantzitsuenak, lau multzo nagusitan sailkatuta:

a) Xedea:

- Jeneralean, komunikatzaileak ezartzen dio xedea hizketa ekintzari, baina hartzailearen onarpena behar du ezinbestean. Informatu, irakatsi, persuaditu edo entretentzea izan ohi dute xedetzat gure komunikazio ekintza gehienek. Garbi dago, ordea, informazio hutserako egoki den hizkera desegoki izan daitekeela persuasiorako. Era berean, eta adibide bat baino ez ematearren, entretenimendua beste xederik gabeko ekintzetan, malguago behar luke hizkeraren zuzen-jator-tasunak juzkatzeko neurriak. Beste horrenbeste gertatzen da generoekin ere, egokitasuna izugarri aldatzen baita generotik generora.

b) Xede-taldea, edo audientzia:

- Auditorioa nolakoa, halakoxea izango da komunikazio egoerak behar duen egokitasuna. Baigorriko zaharrentzat egoki den hizkera zeharo desegoki litzateke Gasteizko gazteentzat, eta, seguruenik, baita Baigorri bertako gazteentzat ere. Berdin gertatzen da ikasi eta ez-ikasiekin, baserri eta kaletarrekin, eta abar.
- Horrez gain, audientziaren handi-txikiak ere sekulako eragina du egokitasunean: gela txiki batean bildutako dozena bat entzulerentzat ez dago Kursaal beteko auditorio batentzat bezala hitz egiterik; ezta alderantziz ere. Audientziaren hizkuntz gaitasunak ere erabateko eragina du komunikazio egoera batean erabili beharreko hizkeraren egokitasuna definitzerakoan.
- Alfer-alferrik arituko da hiztun edo hizlari bat dezakeen euskararik landu eta jasoenean, bere audientziaren euskara berea baino askoz kaxkarragoa bada zuzen-jator-tasunean. Horrek, bistan denez, euskara kaxkarraren alde jokutzen du: trebea molda daiteke kaxkarraren mailara; kaxkarrak, berriz, ezin trebearenera moldatu. Horra zergatik gazte batzuek "Joan dezaket kalera?" eta gisako esaldiak erabiltzen dituzten, etxean jaso duten euskara jator-zuzena erabili ordez. Ez da gaitasun kontua, egokitasun kontua baino. Eta egokitasuna, zentzu horretan, subjektiboa da beti.

---

<sup>11</sup> LERTXUNDI, ANJEL (1999): *Gogoia zubi*. Irun. Alberdania

c) Mezu-bideak:

- Audientzia aurrez-aurre, irrati edo telebistaz bestaldean edo sakelako telefonotik eskegita izan, alde handia dago egoera horietako bakoitzean hizkera egokia zer den finkatzerakoan. Hitz egiten den bezala idaztea edo idazten den bezala hitz egitea desegokia da guztiz. Irratian estimagarri den hitz jarria jasan ezina da telebistan.
- Pare bat mende behar izan ditugu ahozko hizkerak bere lege propioak dituela jabetzeko. Orain, ordea, eskola ez beste guztiok horretaz ohartu garenean, komunikazioaren teknologia berriek kolokan jarri digute hori ere. Izan ere, e-mail, blaga (chat) edo SMStan eraginkorren —eta, beraz, egokien— gertatzen den hizkera ahozkoa da barne egiturari dagokionez, nahiz mezuak idatzi egiten diren. Idatziaren eta ahozkoaren bereizkuntza horrek ez du zentzu handirik XXI. mende hasiera honetako gazteentzat mezu-bide nagusi diren komunikabideetan.

d) Hitzun edo hizlariaren hizkuntz gaitasuna:

- Faktore hau ere kontuan hartu beharrekoa iruditu zaigu euskararen kasuan. Hitzun edo hizlari nor ari den (euskaldun berri-berria den, euskaldun zahar alfabetatu gabea den...) kontuan hartu gabe ez dago darabilen euskara egokia den edo ez erabakitzerik. Gauden egoeran, zuzen-jatortasunean akatsez betetako jarduna egoki izan daiteke, hitztuna euskaldun berri edo euskaldun zahar alfabetatu gabea bada. Nolanahi ere, euskara normaldu ahala desagertu beharreko faktorea litzateke hau.
- Aipatutako faktoreok guztiok —eta aipatu gabe geratuko zaizkigun besteren batzuek— determinatzen dute une bakoitzerako hizkera egokia. Esan beharrik ez dago, baina esan dezagun hala ere, faktoreok guztiok aldi berean daragitela. Egoera jakin baterako hizkera egokia zein den erabakitzea, beraz, aski kalkulu konplexua da, eta horrek badu bere ifrentzia ere: erabili ohi dugun baino kontu handiagoa behar genuke hizkeraren kalitateari buruzko juzkuak egiterakoan.
- Esan dezagun, azkenik, hizkeraren egokitasunarena beti dela konplexua, ez bakarrik gurea bezalako kinka larrian dagoen hizkuntzen kasuan. Zuzentasuna ez bezala, egokitasuna ez dago behin-betiko arautzerik; hitzunek bilatu behar dute egoera bakoitzari dagokion egokitasun modua. Euskararen kasuan, ordea, konplexuagoa da kontua. Egoera diglosikoa dela eta, hitzunek, egokitasun bila abiatu, errazegi jotzen dute, oraingoz, albo erdaretara, euskararen beraren baliabideetara baino. Zaila bada ere, oreka bilatu beharra dago hor, nahitaez. Egokitasuna goitik ezartzea astakeria latza litzateke noski; egokitasuna albo erdaretan bilatzea normaltzat jo eta joera hori behin-betikotzea, aldiz, utzikeria barka ezina. Gauden egoeran, zuzen-jatortasunean kaxkarrak diren hitzun eta hizlari batzuen euskara egokitzat jo behar dugu, baina seinale txarra litzateke hogeitau urte barru hori horrela izaten segitzea. Azken batean, kalitate integrala behar luke helburu, euskara ona. Egoki ez ezik zuzen eta jator hitz egiten duten hitzunik behar ditugu, beraz, eta horrek orain arteko ikusmolde eta jarrerak aldatzea eskatzen du, besteak beste.

Euskara zuzenaz, jatorraz eta egokiaz aritu gara. Irizpideak erabat finkatzeko asmorik gabe, argigarri izan daitezkeen adibide batzuk ekarri nahi izan ditugu hona. Hezkuntza arautuan egin izan ditugu hainbat proba, eta proba horien emaitzaz baliatuko gara adibideak jartzera. 13-14 urteko neska-mutikoei honako ariketa jarri genien behin: "Gurasoen lana dela medio, beste herri batera joan behar izan duzu bizitzera. Apenas duzun lagunik. Egizu herriko aldizkarian argitaratzeko moduko iragarki bat, nor zaren azalduz, lagun eske. Labur, badakizu-eta egunkarietako iragarkiak garestiak izaten direla".

Hona erantzunetako batzuk:

- a- Moises izena dut eta herri honetan berria naiz orain dela gutxi etorri behar izan dudalako. Nire laguna izan nahi baduzu, dei egin ezazu telefono honetara: (xxxxxxx).
- b- Libe nahiz. Ile-horia eta enroyatua nahiz eta arratsaldetan batzuetan ez dut jakiten zer egiten kalean. Zu ere berdin bazara, jarri nirekin kontaktuan. (xxxxxxx).
- c- Mikel da nire izena. Bakarrik nago. Lagunak behar ditut. Zuk ere bai? Idatzi! Egizu nire buzoiak eztanda egitea!!! (xxxxxxx).
- d- Xabier nauk/naun. Surfa eta igeriketa gustatzen zaizkit. Deitu eta deputamadre pasatuko dugu. Nire telefonoa: (xxxxxxx).
- e- Zintzilik nago, txaparroak eguzkitan lehortzen bezala. Ez gero ni hola utzi! Deituko? Ez zara damutuko. Iker. Telefonoa: (xxxxxxx)..

Zuzen-Jator-Egoki irizpideen arabera, honako burutazioak ibili genituen epaitzerakoan:

- a- ZUZENA da. JATORRA ere bai, neurri batean. Baina ez da EGOKIA. Lortu nahi duen xederako ez du euskara eragingarria erabiltzen. Nolanahi ere, behar litzuzkeen tresna gutxi batzuk emanda, jarriko litzateke ikasle hau hizkuntzaz gozatu eta hizkuntza gozagarri erabiltzeko moduan.
- b- Ez da ZUZENA. Ez da noski, EGOKIA. Ezta JATORRA ere. Urruti dabil ikasle hau alde guztietatik.
- c- ZUZENAREN muga-mugan dago. Baina ez da JATORRA. Senaren eta usadioaren aurka doa. Erdarakada begi bistakoa da "egizu nire buzoiak eztanda egitea!" delako esaldi hori. Baina izan daiteke EGOKIA. Esan indarra du. Gainerako 200 ikasleetan inork ere erabili ez duen esamoldea da. Litekeena da batek baino gehiagok idaztea bere buzoira. Oso gutxirekin bihurtuko genuke ikasle hau euskara EGOKIAREN jabe.
- d- Ez da ZUZENA. Hika darabil hasieran, eta da zuka gero, tresnak –kasu honetan hitanoaren erabilerak– huts egiten diolako. Baina EGOKIAGO da halere, den-dena zuka egin balu baino. Asmoa, antzeman egiten zaio. Hizkuntza adierazkorraren bila doa, nahiz horretarako erdararen beharra izan (euskarak huts egiten dio eginkizun horretan). Hitanoa horretarakoxe dela erakutsi behar zaio; ez dela paradigma hutsa.
- e- ZUZENA da. Eta EGOKIA ere bai. "Txaparroen" lokalismoa (gizonezkoen bainu jantziari hala esaten zaio Zarautz aldean) zilegi ez ezik komenigarri ere izan daiteke, herri-aldizkarirako baita iragarkia. Beste esparru bateko hedabide baterako balitz, ez litzateke hain EGOKI, ulermena zailduko bailuke. Jatortasunean krika-kraka txiki bat egiten du belarrira "zintzilik nago" horrek. Eta beste muturrean, sintaxi ezin jatorragokoa da " Ez gero ni hola utzi!". Agian, DESEGOKI puntu bat izateraino, jatorraren jatorrez, hartzailea zein den kontuan harturik ez ulergarri ere izan baitaiteke.

## Hizkuntza estandarra, aldaerak eta erregistroak

Estandarra, aniztasuna gainditzen duen aldaera da. Hitzunek ezagutua eta onartua izan behar du:

- Euskalkiz gaindiko egoeretan eta egoera formaletan, komunikaziorako modu ekonomikoak eta biderkatzaileak eskaintzen ditu hizkuntz eredu honek.
- Balio sinbolikoa eta trinkotzailea du; identifikatzailea.
- Euskara estandarrik izango badugu, euskaraz ari diren komunikabideak, administrazioa eta hezkuntza sistema behar ditugu nahitaez.
- Estandarraren erabilerak berak determinatuko du aldaera estandarren egitura osatuko duten hizkuntz formen aukera.
- Estandarraren garapena oztopa dezaketen faktoreen artean honako hauek dira aipagarrien:
  - Linguistikoak: hizkeren aniztasuna eta hizkuntzaren barne degradazioa.
  - Linguistikaz kanpokoak: oztopo soziolinguistikoak, euskararen erabilera eskasa, eta kontzientziarik eza.

Hizkuntzaren aldakortasuna, guztiz da berezkoa, Toni Mollà<sup>12</sup> dioen bezala: "*Hizkuntza ez da ez monolitikoa, ez aldaezina. Aitzitik, hizkuntza heterogeneoa eta dinamikoa da (nola egituran hala erabileran ere)*". Isidor Marik<sup>13</sup> honela sailkatu zituen edozein hizkuntzatan bereiz daitezkeen aldaera eta erregistroak:

- Egituraren araberrako aldaerak:
  - Diakronikoki: Hizkuntzak aldatu egiten dira. Mugako egoeretan, hizkuntza galdu egin liteke, edo berri bat sortu. Ad: Axularren hizkera, erronkaria.
  - Geografikoki: Hizkuntzak aldatu egiten dira herri batetik bestera, edo lurralde batetik bestera. Ad: euskalkiak.
- Erabileraren araberrako aldaerak:
  - Taldekoak: Soziolektoak edo errepertorioak. Klase edo gizatalde bakoitzak hizkuntz aldaera jakin bat erabiltzen du. Ad: Giza dialektologia / Argotak. Horrelakorik sortuko bada, gutxienero baldintzok bete behar dira ezinbestean: masa kritikoa, erabilera dentsitate nahikoa eta erreproduktzioarako mekanismo sozialak erabiltzea (komunikabideak, irakaskuntza...)
  - Norbanakoarenak: egoeraren araberrako hizkuntz erregistroak. Hitzunok ez dugu beti berdin hitz egiten. Aldian aldiko leku, egoerara egokitzen dugu geure hizkuntza, bai estilistikoki bai funtzionalki, eta adinarekin ere aldatu egiten da hizkuntza. Honako aldagaion araberrakoa izaten da hizkuntz aldaketa:
    - Gaia: Orokorra/ espezializatua, formala / etorri-ahalakoa.

<sup>12</sup> MOLLÀ, TONI (2002): *Manual de sociolingüística*. Bromera. Alzira

<sup>13</sup> MARI ISIDOR (1983): *Registres i varietats del llenguatge*. Barcelona. Generalitat de Catalunya

- Formaltasun maila:
  - Etxekoa / arrunta / zientifikoa.
  - Apala / landua / jaso.
- Komunikazio bidea:
  - Ahozkoa (zuzenean, telefonoz, jendaurrean...),
  - Idatzia (pribatua, publikoa...)

Hizkuntzaren kalitatearen inguruko kezka planteatzen denean (haur eta gazteen hizkerari dagokionez batez ere), kasurik gehientsuenetan honako gabeziak nabarmendu nahi dira:

- Zuzentasunari dagokionez: hizkuntzaren ezagupen maila eskasa. Gazteak ez dira adierazi nahi dutena zuzen adierazteko gai.
- Jatortasunari dagokionez: hizkuntzaren berezko baliabide aberats batzuen ezagupen falta. Esate baterako: hitanoa, esamoldeak, hizkera bereziak...
- Egokitasunari dagokionez: Euskarazko baliokideak dituzten erdal jatorriko espresioen erabilera masiboa. Adierazpide indartsuen bila beti erdarara jotzeko joera (Iparraldean frantsesera eta Hegoaldean gaztelaniara), ezintasunez nahiz zabarkeriaz. Eta, larriagoa dena, hizkuntza sorkuntzarik eza: argotik eza, esamolde berrien falta...

Alegia, hizkuntza birsortzeko mekanismoak ez dabiltzala ondo, eta zailtasunak ditugula, hizkera informal-kolokialean, maila lokaletik (euskalkiaren aberastasunetik edo inguru geografiko/sozial konkretuetako hizkuntza gutxi edo gehiago aberatsetik) maila nazionalerako jauzia emateko. Hizkuntza birsortzeko mekanismoek funtzionatuko badute, gune edo ingurune oso euskalduna behar da, motibazio bizikoa, hizkuntza tresnatzat hartu eta erabiliko duena.

Hizkuntz kalitatearen inguruko datuak  
eta hausnarketak





**E**uskararen kalitatearen adierazle garbi izan litezkeen datuak eskaintzea da atal honen helburua, gai horretaz egin diren azterketen emaitzak barne direla. Hona hemen datu-emaitza horietan esanguratsuenak iruditzen zaizkigunak, haiei buruzko hausnarketa-iruzkinekin batean.

## Egiturazko aldaketa

Azken bi belaunaldi hauetan, euskararen hizkuntz komunitateak aldaketa sakonak izan ditu bere barne egituran.

- Euskarak, mendeetan zehar, aurka izan ditu faktore sozio-politikoak, ekonomikoak eta bestelakoak. Horrek, besteak beste, eten gabeko gibeleratze geografikoa, hiztun galera, bazterketa funtzionala eta barne desegituraketa eragin ditu, baina, guztiarekin ere, belaunez belauneko transmisioa segurtatua izan du euskarak oraintsu arte, hainbat esparru geografiko eta sozialetan hizkuntza nagusia eta askotan bakarra zelako.
- Azken urte hauetan, aldiz, ukatu ezinako hobekuntza izan du euskararen egoerak. Euskararen hizkuntz komunitatea hedatu egin da, lurralde eta funtzio berriak bereganaturik; hiztun kopurua handitu egin da; euskara batu estandarra sortu, eta hainbat egituratze prozesu jarri dira abian. Paradoxikoki, hobekuntza horiekin guztiarekin batera egiturazko ahuldade sakonak ere azaleratu dira, ordea: ezagupenaren eta erabileraren arteko aldea, erabiltzen den euskararen inguruko kezka, belaunez belauneko transmisioan oraindik gertatzen diren galerak, euskararen ofizialtasunik eza Iparraldean eta Nafarroan...
- Corpusari dagokionez, euskara batua sortu eta hedatu da, euskararen modernizazioari ateak parez-pare zabalduz. Euskalkiek euskaldunon arteko komunikazioa eta elkar ulertzea oztopatzen bazuten, orain, estandarrari esker, eta historian lehen aldiz, euskaldun guztiok komunikatzeko eta elkar ulertzeko tresnaren jabe egin gara.

Euskararen egoera funtzionala desorekatua –minorizatua edo minoritarioa, alegia– izanik, inguruko bi erdarek sekulako distortsioak sorrarazten dituzte euskal hizkuntz komunitatearen barne garapenean, garapen hori guztiz baldintzatzeraino.

- Euskaldun askoren ingurua ia erabat erdalduna da.
- Gutxi dira inguru nagusiki euskalduna izan eta denboraren erdia baino gehiago euskaraz ari direnak.
- Erdarak erabat nagusi dira esparru giltzarri askotan: hedabideetan, kalean ...

Honen guztiaren ondorioz, euskal hizkuntz komunitatearen edo hiztun elkartearen barne ezaugarriak guztiz aldatu dira azken urteotan:

- Euskaldun elebakarrik ez dago: euskaldun guztiak elebidunak gara.
- Euskaldunen artean gero eta gehiago dira jatorriz erdaldunak eta erdaraz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino.


Euskararen ezagupenari buruzko abiapuntu argibideak:

- Euskaldunen kopurua handitzen ari da (Iparraldean izan ezik).
- Gero eta euskaldun gehiago dago, batez ere haur eta gazte euskaldunei esker.
- Euskaraz tutik ez dakiten gazteak gero eta salbuespen nabarmenagoa dira EAEn (M. Zalbide<sup>14</sup>).
- Nafarroan, euskaldunen kopurua oso pixkanaka ari da handitzen, eta Iparraldean behera egin du nabarmen kopuru horrek.

## 1. GRAFIKOA

### Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, Euskal Herria (1991-2001)

	1991	2001
Elebidunak	%22	%25
Elebidun hartzaileak	%8	%11
Erdaldun elebakarrak	%70	%64




Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak.

<sup>14</sup> ZALBIDE, MIKEL (2002): *Ikasleek egiten al dute euskaraz?* In BAT42. SEI. Andoain

2. GRAFIKOA

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, EAE (16-24 urte) (%)

	2001	1991
Elebidunak	%25	%49
Elebidun hartzaileak	%21	%20
Erdaldun elebakarrak	%54	%31




Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikoko inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz.

3. GRAFIKOA

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, EAE (%)

	1991	2001
Elebidunak	%26	%32
Elebidun hartzaileak	%20	%23
Erdaldun elebakarrak	%54	%45



Iturria: 1991ko eta 2001eko zentsuak. EUSTAT. Eusko Jaurlaritz.

Euskarak mendeetan ezagutu ez duen lurralde hedadura lortu du azken hamarkadatan, batez ere haur eta gazteei dagozkien adin esparruetan.

Adin batetik behera ia euskaldun guztiak alfabetatuak dira.

Gazte euskaldunen artean gero eta gehiago dira jatorri erdaldunekoak (euskara lehen hizkuntza izan ez dutenak) eta hiriburuetan edo/eta zonalde erdaldunetan (euskaldunak %20 baino gutxiago direnetan) bizi direnak.

- "Bestalde, gurean geroz eta gehiago dira testuinguru mistoetan gizarteratzen diren hiztunak, eta geroz eta gaitzagoa da zehaztea zein den jatorrizko hizkuntza" (I. Esnaola<sup>15</sup>).
- Gaztetxo euskaldunen familia gehienetan beti gazteleraz egiten da. Gehienek eskolan eta lagunartean nagusiki (edo soilik) erdaraz egiten dute (I.Mz de Luna eta K. Berri-Otxoa<sup>16</sup>)

Euskara ikasten duten haurren testuinguru soziolinguistiko hurbila gero eta askotari-koagoa da:

- Familia erdaldunetan, etorkinen pisua gero eta handiagoa da, lan ildo berriak sortu direlarik: aniztasun linguistikoaren inguruko planteamendu berriak, etorkin askoren euskararekiko erreferentzia eta informazio premia, integrazioarako aukerak sustatu beharra...
- Familia euskaldunetan, euskararen ezagupen mailak desberdinak dira euskaldunen dentsitateari nahiz ezagupenaren sakontasunari dagokienez, eta ezagutzen diren euskara motak ere desberdinak dira: bertoko euskalkia/beste euskalkiak, batuaren ezagupen maila, alfabetatze maila...
- Euskararen ezagutza desberdin horiek bestalde, bere ingurune guztian aurkitzen ditu haur edo gazte euskaldunak: herrian zein auzoan, irakaskuntzan, eskolorduz kanpoko jardueretan, komunikabideetan (telebistan batez ere), irakurgaietan, etab.

## Euskararen transmisioaz

Euskararen transmisioan asko aurreratu da (Iparraldean izan ezik). "Euskararen Jarraipena III"<sup>17</sup> honako emaitza hauek aurki daitezke:

- EH osoari dagokionez, eta 16 urtetik gorakoen artean, L1 euskara edo biak izan eta ongi hitz egiten ez dutenak 100.000 pertsona inguru dira. L1 erdara izan eta euskaraz ongi hitz egiten dutenak, berriz, 177.000 inguru. Saldoa positiboa da, beraz.
- EAEn, 16-34 urte bitartekoetan ama hizkuntza euskara edo biak dituztenen artean, euskara galdu dutenak %2 dira eta zertxobait hitz egiten dutenak %5 (8.000 inguru). Ama hizkuntza erdara izan eta euskara ongi hitz egiten dutenak, aldiz, %25 dira (118.000) eta zertxobait hitz egiten dutenak %24 (106.000)

<sup>15</sup> ESNAOLA, IMANOL (2002): *Gaztetxoak eta euskara. Euskara etxeko ala auzoko?* In BAT42. SEI. Andoain

<sup>16</sup> MARTINEZ DE LUNA I., BERRIO-OTXOA K. (2001): *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara, Bilbo, NUP-EHU-EKE.*

<sup>17</sup> Op.cit.

Belaunaldien arteko hizkuntza transmisioan eten nabarmena egon da. Gazteen eta zaharren euskarak desberdinak dira, eta horren kontzientzia hedatua dago. Bestalde, gazteen gaur egungo euskara, belaunaldien arteko "liskarraren" ondorioa ere bada. Gazteek "beren" hizkera sortu nahi dute "boterearen" (irakasle eta gurasoen) hizkeraren aurka (alegia, estandarraren aurka).

- Gazteen heren batek zailtasunak ditu eskualdeko edadetuak ulertzeko (I.Mz de Luna eta K. Berri-Otxoa<sup>18</sup>)
- "Talde nortasuna da dialektoa bideratzen dauana. Taldekideekiko antzekotasunak edo antzeko izan gurak ahalbideratzen dau aldaera soziala: gazteek ez dabe euren guraso, irakasle eta aitita-amamen modura berba egin gura" (Estibalitz Amorrortu<sup>19</sup>)

Familiatik jasotako ereduaz gain, haur eta gazteek euskararen erreferente oso desberdinak jaso ohi dituzte (eskola, telebista eta komunikabideak, musika eta literatura, inguru...). Inoiz ez bezala, gaur egungo haurrak eta gazteak, tokian tokiko euskalkiaz (bizirik dirauen lekuetan) eta estandarraz gain, euskararen bestelako erregistroak ere modu natural eta sistematikoan jasotzen ditu.

Askotan, familia ez da erreferenterik nagusiena. Are gehiago, maiz gertatzen da haurrek "kanpotik" dakarten euskara "okerra" nagusitzea:

- Eskolatik heldu diren zenbait eredu oker etxeetara sartzen hasi dira" (I. Gaminde<sup>20</sup>)
- Horrek ziurtasun eza sorrarazten du familietan nahiz hitzun gazteengan.

Fenomeno hauen guztien ondorioz, belaunaldi berrien euskara gero eta eklektikoagoa da, ahozko harremanetan sistematikoki nahasten direlarik euskara batua, erdarakadak, norberaren hizkera edo euskalkia (bizirik dagoen lekuetan) edo/eta beste euskalkiak.

## Euskararen erabilpenaz

Euskararen erabilera esparruak oso mugatuak izan dira aurreko mendeetan. Gaur egun, aldiz, inoiz bete izan ez dituen esparru funtzional berrietan normaltasun osoz erabiltzen da euskara. Aldi berean, ordea, erdaren presentzia gero eta handiagoa da orain arte euskararenak izan diren zenbait esparrutan. Lehen, gutxiagok eta esparru gutxiagotan egiten zuten euskaraz, baina horien artean baziren bere bizitza osoa euskaraz garatzen zutenak; gaur egun, denak elebidunak gara, eta euskararenak bakarrik ziren esparru horietara ere iritsi da, aldez edo moldez, erdaren eragina. Alegia, gehiagok eta esparru gehiagotan hitz egiten dute euskaraz, baina erdararen presentzia eta interferentziak gehiago eta handiagoak dira.

Haurrak eta gazteak dira euskararen erabilpenean gora nabarmenkieng egiten ari diren adin multzoak.

<sup>18</sup> MARTINEZ DE LUNA I., eta Berrio-Otxoa K. (2001): op. Cit.


<sup>19</sup> ESTIBALITZ AMORRORTU (2003): Ahozketasuna aztergai" Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbao

<sup>20</sup> GAMINDE, IÑAKI (2003): Ahozketasuna aztergai" Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbao

4. GRAFIKOA

Euskararen erabilera, Euskal Herria (1991-2001)

	1991	2001
Euskaraz erdaraz hainbat edo gehiago	%14	%16
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	%8	%15
Erdaraz bakarrik	%78	%69




Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

5. GRAFIKOA

Euskararen erabilera, lehen hizkuntzaren arabera EAE (16-24 urte)

	1991	2001
Euskaldun zaharra eta euskaraz egiten du	%17	%21
Euskaldun berria eta euskaraz egiten du	%9	%26



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistikako inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Hala ere, gazteen euskararen erabilpena ez da ezagupenaren proportzioan handitu. Zonalde erdaldunetan, gazteen euskararen erabilpena erabat anekdotikoa da, eta arriskuak begi-bistakoak dira: asignaturiazioa (eskola gai huts bihurtzea euskara) eta, azken batean, euskara erabiltzeko motibazioa galtzea.

Gazteek beren arteko harremanetan nagusiki euskara erabiltzen duten herrien zerrendan apenas agertzen den 2.000 biztanletik gorako herririk. Aitzitik, asko dira gazteen artean euskararen erabilpena %2ra iristen ez diren herri eta hiriak. Zonalde euskaldunetan, hala ere, badira ia erabat euskaraz bizi diren haur eta gazte hiritarrak.

### Euskararen ezagupen erlatiboaz, erregistroez eta adierazpen ahalmenaz

Inkesta soziolinguistikoaren arabera, hiru dira euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak, nahiz hirugarrenaren eragina apalagoa izan:


- Sozio-estruturala. Hau da, harreman sarea osatzen duten euskaldunen dentsitatea, gune soziolinguistikoari hertsiki loturik dagoena.
- Sikolinguistikoa. Hots, norbanakoak hitz egiterakoan euskaraz ala gaztelaniaz moldatzen diren errazago; honek lotura zuzena du lehen hizkuntzarekin.
- Euskararekiko interesak eta jarrerak osatzen dute hirugarren faktorea, eta, esan bezala, maila apalagoko eragina du euskararen erabileran.

Euskararen ezagupen erlatiboari dagokionez, askoz gehiago dira erdaraz hobeto moldatzen direnak euskaraz baino. Euskaraz hobeto moldatzen direnen kopurua finko samar ageri da azken urteotan.

#### 6. GRAFIKOA

### Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren bilakaera, Euskal Herria (1991–2001)

	1991	2001
Euskal elebidunak	%34	%28
Elebidun orekatuak	%28	%28
Erdal elebidunak	%38	%44



Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistiko inkesta (2001). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.



Gazte euskaldunen euskara maila, oro har, ez da ona; ez ditu asebetetzen beren behar komunikatiboak. Gazte euskaldun gehienek adierazkortasun arazoak dituzte:

- "Euskarazko gaitasun pasiboetan trebeagoak dira... Aurrera egin da erregistro jaso-formal-espositiboetan (...) eta atzera berriz, mintzajardunaren esparru informal, barrenkoi-intimoetan... Aurrera egin da batuaren ezagupenean eta gero eta urrun-etenagoa gertatzen zaie askori inguruko baserri-giroko hizkera-moldea... Ohiko hots-ebakeran eta doinueran atzera egin da" (M. Zalbide<sup>21</sup>)
- "D eruedetan gaintitzen ditugun ikasle askok ez du zuzentasunaren maila minimorik ere (...) Gazteen arteko euskara murriztua, erkindua zabaldu izan da, betiko euskara moldea saihetsera lagata" (J.L.Goikoetxea<sup>22</sup>)
- "Horiek denak senak konpontzen ditu. Sena familiaz datorkizu, euskara normal transmititzen den lekuetan" (I.Sarasola<sup>23</sup>)
- Argota eta gazte hizkera sortzerakoan "argot nazionalaren" hutsunea nabarmena da. Gazteek darabiltzaten erreferentzia nagusiak "lokalak" (euskalkia) edo "erdarak" dira. (Asisko Urmeneta<sup>24</sup>)
- "Familia eta hezkuntza sistemako agenteen euskalduntasun mailak neurri handian baldintzatzen ditu gaztetxoek euskarazko gaitasuna, harreman sareen trinkotasuna eta baita euskararekiko interesa eta jarrerak ere" (I.Mz de Luna<sup>25</sup>).

Erregistro bakarreko "estandarra" baizik ez daki askok. Bestalde, zuzentasuna eta egokitasuna nahastu, eta zuzendu behar ez liratekeenak ere zuzendu egiten zaizkie askotan:

- "Argota" edo "gazte hizkera" gisa har daitezkeen fenomeno asko "erabilera ez zuzentzat" hartzen dira (jota ona, jebixe, zeba etorri behar dut berandu?)
- "Euskara batuaren izenean sarri askotan hizkuntzaren bariazioa eta bariabilitatea ukatu izan dira" (I.Gaminde<sup>26</sup>)

Gero eta zailagoa da gazteen hizkuntz erregistroa identifikatzea. Hizkera nahasia da. Erdiak baino gehiagok (%54) ez daki herriko hizkeraz hitz egiten (I.Mz de Luna eta K. Berri-Otxoa<sup>27</sup>)

- Euskalkiak oso euskarri garrantzitsua dira gazte hizkeran, baina ez dira geografikoki modu hertsian erabiltzen. Gaur egun, guztiok entzuten dugu euskalki bat baino gehiago (TB, musika, irakurketa bidez...).
- Euskalkien eta estandarren arteko hibridazioa gero eta nabarmenagoa da. Gure hizkerak nahasten eta hurbiltzen ari dira.

---

<sup>21</sup> ZALBIDE, MIKEL: op.cit.

<sup>22</sup> GOIKOETXEA, JOSE LUIS (2002) in *BAT Soziolinguistika aldizkaria 42. zka.* Andoain. SEI

<sup>23</sup> SARASOLA, IBON (2002) in *BAT Soziolinguistika aldizkaria 42. zka.* Andoain. SEI

<sup>24</sup> URMENETA, ASISKO (2003) in *Ahokotasuna aztergai* Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbao

<sup>25</sup> MARTINEZ DE LUNA, I. (2002) in *IX Jardunaldi pedagogikoak euskararen erabilera.* Iruñea.Ikastolen Elk.

<sup>26</sup> GAMINDE, IÑAKI (2003) in *Ahokotasuna aztergai* Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbao

<sup>27</sup> MARTINEZ DE LUNA, I. ETA BERRI-OTXOA, K. (2000): *Etorkizuna aurrirakusten 99.* Bilbo. NUP-EHU-EKE

Batua, norberaren hizkera edo euskalkia, gainerako euskalkiak, erdarakadak... den-denak nahasi erabiltzen dituzte gazteek, jatorri eta zonaldearen arabera proportzioak desberdinak badira ere.

- "Perpaua barruko kode aldaketa elebidunen arteko komunikazioan oso maiz gertatzen den fenomeno da" (...) "erabilera horren zergatia, hiztunen euskarazko gaitasun urria baino sakonagoa izango litzateke (konnotazioak, umorea edo ironia, egoera kontestualizatuak azpimarratzeko..."(I.Muñoa<sup>28</sup>).
- Gazteek familian euskalkia edo/eta erdara entzun dezakete; komunikabideetan, batua, euskalkia edo nahaski bat; eskolan, berriz, batua gehienbat. Euskalkien mugak hautsi egin dira, eta garbi dago zein diren muga hauste horren eragile nagusiak: TB, internet, unibertsitatea, musika...

### Euskararen inguruko motibazio, jarrera eta iritziez

Gazte gehienek (eta nagusiek ere) funtzio komunikatiboa ematen diete erdare; euskarari, aldiz, funtzio sinbolikoa eta politikoa. Hizkuntza desberdinen arteko funtzio banaketa zehatza ezartzen dute. Euskararen alde daude, baina praktikan euskararen "estatusa" bere horretan onartzen da. Iparraldean bereziki baserriari eta iraganari lotua da euskara. (I.Mz de Luna eta K. Berri-Otxoa<sup>29</sup>)

Testuinguruak eta aukera politikoak eragin zuzena dute gazteen euskararekiko jarretetan.

Euskarazko kultur produktuen kontsumoak ez du, gazte euskaldunen artean, legokiokeen proportzioan gora egin. Ondorioz, euskarazko erreferentzia sinboliko eta errealean hutsunea nabarmena da. (Euskarazko kultur produktutzat, bai euskaraz sortutakoak eta bai erdal hizkuntzetatik itzuli edo egokituak hartzen ditugu hemen).

### Molde berriak

Teknologia berrien eraginez, eta inguruko hizkuntza guztietan bezala, euskaraz ere ziber-hizkera berriak sortu dira, bi ezaugarri nagusi hauekin: hitz egiten den bezala idazten da (maila informaleko harremanetan), eta laburdurak etengabe erabili.

Erabilera informal hauetan, ordea, ageri-agerian geratzen dira gazteen ahozko kodeak dituen gabeziak: erdarekiko menpekotasuna, erabilera okerrak, hizkuntzaren pobretze espresiboa, sorkuntzarik eza...

### Globalizazioa

XIX. mendearen hasieran euskaldun gehienak elebakarrak ziren; XXI. mende amaieran, aldiz, gehienak eleanitzak izango dira, itxura guztien arabera. Gaztelania edo frantsesarekiko mendekotasuna, euskarak orain arte pairatu izan duena, norabide bakarrekoa zen. Aurki,

<sup>28</sup> MUÑO, INMA (2002) in *BAT Soziolinguistika aldizkaria 42. zka.* Andoain. SEI.

<sup>29</sup> MARTINEZ DE LUNA, IÑAKI ETA BERRI-OTXOA, Kontxesi (2000): Op.cit.

ordea, mundu mailakoa izango da euskararen mendekotasuna: ingelesarekikoa, alegia. Mendekotasun egoera batetik bestera goaz, beraz. Bien bitarte horretan, euskara bera aldatu egingo da, jakina, hizkuntza nagusien eraginez.

Egoera berri horretan, ezinbestekoa izango da euskararen erabilera eta egokitzapen linguistikoa bermatzea gizarte-funtzio guztietan. Besteak beste, garapen tekniko-terminologikoaren bidez.

## Ondorioak

Euskaldunon hizkuntz komunitateak funtsezko aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak ezagutu ditu bere baitan azken mendean, eta areago azken hamarkadetan. Funtsezkoen artean honako hauek aipatuko ditugu:

- Euskararen batasuna eta modernizazioa. Estandarraren sorrera.
- Euskararen hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan izan ezik.
- Euskara mintzabide bakar zuen populazioa desagertu egin da, eta euskara mintzabide nagusi duten pertsona eta inguru geografikoak lehen baino gutxiago dira.
- Euskaraz alfabetatutako belaunaldia dugu, historian estrainakoz.
- Jatorri erdalduneko euskal elebidunenek gero eta proportzio handiagoa osatzen dute.
- Beren komunikazio jardun osoa euskaraz garatu ahal izateko arazoak dituzten gazte euskaldunak gero eta gehiago dira, proportzionalki.
- Euskarazko kultur produktuen kontsumoa ez da espero zitekeen neurrian hazi. Bestalde, globalizazioaren eta teknologia berrien inguruko komunikazio esparru berrietan euskarak duen presentzia murrizta da oso.

Bistan da, beraz, euskal hizkuntz komunitatearen egitura sakonki astintzen eta eraldatzen duen prozesu global baten aurrean gaudela. Hala, bada, hizkuntzaren kalitatearen inguruko hausnarketek errealitate horixe hartu behar du, nahitaez, abiapuntutzat, beti ere gogoan izanik errealitate konplexua dela, asko eta askotarikoak baitira kontuan hartu beharreko faktoreak.

Hizkuntz kalitatean eragiten duten esparruak



## Aitzin oharra

Ikasketa prozesua eta erabilera guztiz loturik daude; erabilera bera da neurri handi batean ikasteko modurik egokiena, eta baita ezagupena finkatu eta sozializatzeko berme nagusia ere.

Euskarazko hitz, esamolde, lokuzio eta esaera asko arrotz egiten zaizkie haur eta gazte askori. Batzuetan ezagutu ere ez dituzte egiten, eta ezin beraz erabili. Baina, sarri, ezagututa ere ez dituzte erabiltzen, beren inguruan horrelakorik ez delako erabiltzen edo erabiltzekotan "zaharrek" erabiltzen dituztelako, ez beren adinkideek: zahar kutsua hartzen dietela, alegia, eta horregatik ez dituztela erabiltzen.

Erabilera esparruak irabaztea ezinbestekoa da, beraz, hizkuntzaren kalitatean eta adierazkortasunean aurrera egitekotan.

## Oinarrizko faktoreak eta baldintzak

Kalitatezko hizkuntza izateko, derrigorrezkoa izango da hizkuntza horretan hitz egingo duen komunitate bat izatea, eta hizkuntza horrek bere garapenerako ezinbestekoak diren baldintzak bermatuta izatea. Euskaldunik ez badago, euskaldunek ez badute euskaraz egiten —edo ez badira gai garai berrien eskakizunetara egokitze—, ezinezkoa izango da kalitatezko hizkuntzarik sortzea.

Hizkuntzaren kalitateaz hitz egitea, beraz, hizkuntzaren normalizazioaz hitz egitea da. Bere egoera normalizaturik ez duen hizkuntz komunitateak beti izango ditu gabeziak. Aldi berean, komunitate hori zenbat eta beregainago eta hizkuntz kalitatean aurretuagoa izan, orduan eta normalizatuagoa izango da.

Prozesu hau erabat dinamikoa dela —eta aurrerantzean ere hala izango dela— jakinik, esan dezagun, hala ere, gutxieneko normalizazioak honako hiru ezaugarriok eskatzen dituela:

- Euskararen lege-babesa.
- Belaunaldi berrien euskararen ezagupena bermatzea.
- Hizkuntz normalizazioaren aldeko jarrera zibiko-politikoa.

## Motibazioa

Motibazioaz beste txosten bat landuko bada ere, aipatu beharra daukagu motibazioaren puska handi bat hizkuntzaren beraren baitan dagoela.

- Ikasteko moduak, ikasitakoa erabiltzeko aukerak eta beharrak eragin zuzena dute motibazioan eta hizkuntzaren prestigioan.
- Jesus Rubiok<sup>30</sup> ondo dioenez, hizkuntza ikasi eta erabiltzean ez badira hiztunaren komunikazio premiak asetzen, hizkuntza tresna kamutsa gertatzen bazaio hiztunari, ongi alferrikakoak izango dira motibazioa lantzeko "kanpotik" egindako gainerako ahaleginak.

<sup>30</sup> RUBIO, JESUS (2002): *Euskararen garabideak*. Alberdania. Irun

- Bistan denez, horrek eskatzen du hizkuntza ikasi eta erabiltzeko gune nagusietan hemen EGOKItasuna esan diogun hori hartu behar dela beti irizpide nagusitzat. Hizkuntzaren tresna izaera jarri lehen planoan, paradigmatik-eta bigarreanean utzita, egokitasunaren zerbitzura beti ere.

## Familia eta berezko ingurunea

Mendez mende, familia eta berezko ingurunea izan dira euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatu dutenak. Familia egitura aldatzen ari da, ordea, eta berezko ingurune euskaldunak murrizten. Gero eta gehiago dira familietan euskara jasotzen ez duten haurrak.

Hala ere, datuek adierazten digutenez, lehen hizkuntza gisa (bakarrik edo erdararekin batera) euskara ikasitakoak dira gero ezagupen eta erabilera mailarik onenak izatera iristen direnak.

Premiazkoa da, beraz, euskararen euskarririk sendoenak diren familia eta berezko inguruneak babestea eta sendotzea. Euskaldunik ez dagoen familia eta inguruetan, berriz, bestelako estrategien bidez bermatu behar da transmisio naturalaren bidez lortu ezin daitekeena. Honako hauek izan litezke aipatu "bestelako estrategia" horietako batzuk: haur eskolak, haur hezkuntza, zaintzaile eta hezitzaileak, euskararekiko harremanak sendotzea familian, kalean eta haurraren inguruan...

Gurasoengandik seme-alabenganako hizkuntz transmisioan eten nabarmena gertatu da. Sarri, euskaldun zahar alfabetatugabeek konplexu halako batez jokatu izan dute, darabilten euskalkiari nahiz beren hizkuntz gaitasunari balio gutxiko irizita edo. Premiazkoa da, beraz, jokabide hori irauli eta norberaren hizkuntz ondarearen transmisioak duen garrantziaz jabetuaraztea, euskaldunen bat dagoen familietan euskararen berezko transmisio hori segurtatzeko.

## Hezkuntza sistema

2. atalean aipatua, Lertxundirena<sup>31</sup>, izan liteke diagnostiko orokorra:

Gero eta irakasle gehiago dago Espainian —Europar aspaldikoa da joera— hizkuntzaren irakaskuntza gramatikala arbuiatzen duena, lehendabiziko hizkuntzan batez ere. Guk, ordea, begien aurrean genuen eredurik estuenaren aldeko apustua egin dugu. Hizkuntzaren **deskribapena** lehenetsi dugu hizkuntzaren beraren erabilera **espresiboaren** kaltean.

Hizkuntzaren ikasketa zuzentasun hutsetik egituratzen bada, ezinezkoa da ikasleengan motibaziorik sortzea.

- Zuzentasuna bere horretan agortzen da, eta ikasbide horrek zuzentasuna bera bermatzeko ere ez du balio, D ereduko gazteen ortografi akatsen kopuruak frogatzen duenez.
- Jatortasuna ere ez da kontua. Egokitasuna hartu behar du eskolak ardatz.

---

<sup>31</sup> LERTXUNDI, ANJEL (1999): *Gogoa zubi*. Irun. Alberdania

- Eskolaren helburu nagusia araua irakastea da noski. Baina "araua" diogunean, "arau komunikatiboa" esan nahi dugu, eta ez "arau gramatikala" bakarrik.
- Egokitasuna ardatz harturik, egoera komunikatibo estandarizatu eta normalak landu behar ditu eskolak, gainerako guztia (zuzentasuna eta jatortasuna) horren zerbitzura jarri.
- Egoera komunikatiboak sortu, egoera bakoitzari xede bat jarri, eta xede hori (emozioak eragitea) nola lortu. Horrek behar luke eskola jardunaren ardatz. Axola zaion egoera batean, ikasleak berak eskatuko ditu behar dituen tresnak, direla paradigmak edo gainerako baliabideak. Baina axolako xede bat izateak baino ez dezake motibazioa berma.

Esan dugun horrek badu beste ondorio bat ere. Lagun arteko hizkera, argotak eta jergak, ez dira zuzenean eskolaren langai.

- Egoera komunikatibo estandar formalizatu samarrak egokitasunaren ikuspegitik landuta, ordea, ikasleak gaituago egongo dira gero, antzekotasunez bada ere, egoera ez-formaletan estrategia egokiak aurkitzeko.
- Araua haustetik sortzen dira argotak eta jergak, baina araua ezagutzea ezinbesteko baldintza da horretarako, eta hori da eskola sistemaren funtzio nagusia.

"Ez dugu ahaztu behar norma eta hizkuntza bizia etsai direla" (I.Sarasola<sup>32</sup> in BAT42).

- Hizkuntza tresna moduan egoki erabiltzen ez dakien ikaslearentzat, alferrikakoa ez ezik amorragarria eta etsipengarria ere bada menderatzen ez duen tresna horri buruzko goi mailako teorizazioan jardun beharra. Fonetika, dialektologia eta abarrak unibertsitaterako uztea hobe da, beraz. Asumitu beharra dago Euskal Herriak hizkuntzari dagokionez bizi duen egoera ez normala. Gainerakoa, ostrukaren estrategia da, edo umearena: arriskuaren aurrean begiak itxi, eta horrenbestez arriskua desagertzen dela uste izatea, alegia.
- Helburu horrek, bestalde, ikastetxeen jardun osoa hartzen du bere gain.
- Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan (ikastetxe asko eta askotan gaztelania izan arren irakaskuntzako hizkuntza nagusia), gero eta jakintza alor gehiago lantzen dira, eta horietako asko euskaraz ere bai gaur egun. Hala, bada, ugaria da maila horietan sortzen den ikas-materiala. Ezinbestekoa da, ordea, sortzen den material horretan erabiltzen den euskararen egokitasuna zaintzea, batetik, eta, bestetik, alor edo jakintza esparru bakoitzean egiten diren ekarpenak beste alorretara —eta gizarte osora— iristeko bideak zabaltzea. Horrekin batera, eta euskarazko adarrei dagokionez, irakasleen ebaluazioetan nahitaezko osagai behar luke izan irakasle bakoitzak darabilen euskararen egokitasuna. Izan ere, irakatsi behar duen gaiaz ia ezer ez dakien irakaslea bezain txarra baita gaiaz ia dena jakin arren dakien hori modu eraginkorrean (egokian) komunikatzen ez dakiena.

## Hedabideak

Euskararen kalitateari eskaintzen dioten arretaren arabera, bi sail handi egin litezke nazio mailako euskarazko komunikabideetan: idatziak, batetik; eta ikus-entzunezkoak bestetik.

<sup>32</sup> SARABOLA IBOIN in *BAT Soziolinguistika aldizkaria 42. zka.* Andoain. SEI



Kalitatearekiko arduraren handiagoa erakutsi dute orain arte idatzizkoek ikus-entzunezkoek baino. Kalitatea zaindu duten kasuetan ere, zuzentasunari —eta, neurri apalagoan, jatorrasunari— erreparatu izan diote orain arte hedabideek, eta, salbuespen gutxi batzuk salbu, egokitasuna bermatzea ez da lehentasunen artean agertzen.

Eskolak ez bezala, hedabideek erregistro bat baino gehiago lantzeko aukera dute, eta baliatu behar lukete, horretarako daude-eta, besteak beste, generoak.

- Horretara jarri izan diren apurretan, garbi geratu da hedabideek duten eragina: "Hori egina zagok", "Hona portzulo hartzera", fortuna handia egin duten esapideak dira. Gutxitxo, hala ere, hedabideek dezaketenerako.
- Oro har, erregistro berdinegiak erabiltzen dira genero guztietan eta, eraginkortasuna nahi denean, gaztelarera jotzen da sarriegi.

Kontua berez aski larria izaki, are larriagoa da eraginkor —hots: egoki— izatea beste funtsik ez duten generoetan, hala nola publizitatean. Egokitasunaren jardun paradigmaticoa da publizitatea: huts egin dezake zuzentasunean edo jatorrasunean, baina inola ere ez egokitasunean, bere izateko arrazoia galduko luke-eta horrenbestez. Euskarazko publizitatea, aldiz, gaztelarazkoaren itzulpena da gehienetan, eta, kasurik onenean, zuzena- edo izatea gerta liteke. Suerte apur batez, jatorra ere bai. Euskarazko publizitatearen euskara egokia izatea, aldiz, mirari baino ez da, publizitate prozesuetan euskarak izan ohi duen tokia kontuan harturik. Euskararen aldeko kanpaina instituzionalak ere erdaraz landu eta erabakitzen dira gehienetan, azken unean itzultzaileen bati ematen zaizkiola.

Programa edo sail bat sortzen denean, eduki-ildoak finkatzen den bezala finkatu behar litzateke dena delako sail edo programa horretan erabiliko den hizkeraren nondik-norako nagusia. Ez dago denetarako balio duen eredu bakar bat ezartzerik. Publizitate prozesuetan, hasiera-hasieratik bermatu behar litzateke euskararen presentzia.

## Teknologia eta hedabide berriak

Esan berri duguna are egiagoa da hedabide berrietan. Ahozkoa eta idatzizkoaren arteko mugak ezabatzen ari dira, nabarmen, Interneten (e-mail, blaga) eta SMS edo sakelako telefono bidezko mezuetan. Arlo horietan erabiltzen den hizkera estandar nagusiaren ikuspegitik juzkatzea, astakeria galanta da.

Teknologia eta hedabide berrietan funtsezkoa izango da euskarazko produktu eta zerbitzuak eskuragarri eta erakargarriak izatea. Horretarako, ordea, euskarazko edukiak ugaltu eta ezagutarazi behar dira, haien kontsumoa bideratu eta bultzatuz.

Horretarako behar diren oinarri teknologikoak landu behar dira: hizkuntzaren corpusari dagozkionak, era guztietako zuzentzaileak, edo hizkuntzaren erabilera bermatuko duten bestelako euskarriak.

Hedabide berriek gero eta presentzia handiagoa dute —eta areago izango dute— hezkuntza sisteman. Eusko Jaurlaritzaren "Premia" programari esker, ikasle bakoitzeko ordenagailu ratioa handiagoa dugu EAEn Espainian baino. Programa horretaz —eta, oro har, teknologia berriez— arduratzen direnek behin eta berriz aipatzen dute teknologia berrietan sartzen diren edukiak ezin direla izan paper euskarrikoen kalko, kopia edo eskaner huts, euskarri bakoitzak bere formato propioa eskatzen duela, bertan jartzen diren edukiak eraginkor

izango badira. Mezua euskarriari egokitu behar horretan, ordea, sekulako garrantzia dute erabiltzen diren hizkera eta erregistroek, eta hori, tamalez, gutxitxo aipatzen da teknologia berriak ezarri eta kudeatzeko ardura dutenen artean. Komenigarria litzateke, beraz, alor horretan dabilzantentzat ikastaro edo hitzaldi sorta batzuk antolatzea, teknologia berriak ezartzean euskararen kalitatea atzenduta gera ez dadin.

### **Beste jarduera esparruak**

Giza talde bakoitzak, jarduera bakoitzak, bere hizkera propio eta berezia du. Azken urteotan ahalegin handia egin da euskara egokitze eta osatzeari dagokionez, euskara edozein jardueratan erabilgarri bihurtzeko: administrazioan, lan munduan, zerbitzuetan, kirolean ...

Esparru horietan ere, arestian aipaturiko parametro berberetan planteatzen da hizkuntzaren kalitatearen auzia. Izan ere, euskararen erabilera sektorialak zenbat eta aberatsago eta osatuagoak izan, orduan eta hobea izango da hizkuntzaren kalitate maila orokorra ere. Bestalde, sektore hauetako euskalduntze programei ere guztiz aplikagarriak zaizkie hezkuntzaren inguruan aipatu ditugun hausnarketak.

### **Euskarazko edukien sorkuntza, hedapena eta gizarteratzea**

Euskarazko edukien, produktuen eta zerbitzuen eskaintza gero eta zabalagoa da: literaturara, musika, hedabideak, kirola, aisia,...

Zabaltasun eta aniztasun hori da nazio mailako erregistro desberdinen sorrera, hedapena eta erabilera ahalbidetzeko oinarririk sendoena, erreferente komunak sortzeko aukera eskaintzen duelako; bai hizkuntza erreferenteak (Euskal Herri osoko hiztunek ulertu eta erabiliko dituztenak), eta baita erreferente informatibo-sinbolikoak ere.

Erregistro horien hedapenerako, ordea, ezinbestekoa da eduki horiek ezagutzea eta kontsumitzea Euskal Herri osoan.

Proposamenak eta lan ildoak



## Orokorrak

- Euskarak lege-babesa izatea Euskal Herri osoan.
- Euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzea.

## Motibazioa

- Motibazioari buruz beste txosten bat idatziko bada ere, honako aspektu hau nabarmendu nahi dugu: hizkuntzaren ikasketarekin eta erabilpenaren hobekuntzarekin zerikusia duten plangintza, egitasmo eta sektore guztietan, hemen "egokitasuna" esan diogun horren aldeko giroa sustatu behar da.

## Familia eta ingurune hurbila

- Haur edo gazteak dituzten familienganako komunikazio bideak zabaltu, hizkuntzaren transmisioan duten zeregina argitu, eta transmisioa segurtatze aldera dauden aukerak eta bideak azaldu eta eskaini:
  - Haur/gazteen ingurune hurbilean euskararen presentzia eta erabilpena segurtatu.
  - Euskarazko zerbitzuak jaso.
  - Euskarazko kultur produktuen kontsumoa sustatu.
- Dauden esperientziak bildu eta orokortu:
  - Haur jaioberrien inguruan.
  - Hezkuntza sistemaren bidezkoak.
  - Udalerriei dagozkienak.

## Hezkuntza sistema

- Helburua eta ikasbideak egokitasunaren ikuspuntura moldatu, gramatikaltasunetik komunikaziora:
  - Planteamendu metodologikoaren garapena: metodoa eta ikasmaterialak.
  - Irakasleen prestakuntza eta formazioa.
  - Ahozkotasanaren lanketa txertatu "curriculum"ean eta ebaluaketa sistemetan.
- Adinaren arabera, honela zehaztuko genituzke helburuok:
  - 0-5 urte bitartean, jario egokiko hiztunak irakasle.
  - 6-11: ahalik eta pieza komunikatiborik gehien eman.
  - 12-16: haurrengan nolabaiteko eragina duten piezetan erabili diren estrategia komunikatiboak bistaratu, eta antzekoak sortzen hasi.
  - 17-22: izatekotan, hemen hasi behar luke, aurreko guztia egin eta gero, meta-hizkuntza apur bat sartzen.
- Ikastetxeetako hizkuntz normalizazio plangintzak hedatu eta sistematizatu. Plangintza horiek honako esparru hauek jorratuko dituzte:

- Ikastetxearen jardunean esku hartzen duten eragile guztiak: irakasleak, ez irakasleak, gurasoak, ikasleak...
  - Hezkuntza jarduera osoa.
  - Ikasorduetako eta ikasorduetatik kanpoko erabilera ikastetxean.
  - Antolatzen diren ekintzak.
  - Barne funtzionamendua.
- Ikastetxeetako eta udalerrietako plangintzak lotu eta koordinatu.
- Orain arte Hezkuntzatik bideratu diren diru-laguntza programak osatu eta egokitu:
  - Ahozko Adierazpena indartzekoa (NOLEGA...)
  - Ikasgelaz kanpoko ekintzak (IKE)
  - Euskal Girotze egonaldiak (EGE)
  - Ikastetxeen Arteko Binakako Loturak (IKABIL)
  - Eta abar.
- Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan:
  - Sortzen den ikas-materialean erabiltzen den euskararen egokitasuna zaindu eta material horiek ikastetxe guztietara zabaldu.
  - Alor edo jakintza esparru bakoitzean egiten diren ekarpenak beste alorretara —eta gizarte osora— iristeko bideak zabaldu eta erabili.
  - Euskarazko adarrei dagokienez, irakasleen ebaluazioetan nahitaezko osagaitzat hartu irakasle bakoitzak darabilen euskararen egokitasuna.

## Hedabideak

- Programa edo sailen bat diseinatzerakoan, hari dagokion hizkera erabaki, 2.2.3 puntuan esaten dugunaren arabera. Irizpide hori bereziki landu haur eta gazteei zuzenduriko kultur eta komunikazio produkzioan.
- Hedabide nagusiak, Euskaltzaindia, eta sektore profesionalen ordezkariak (idazleak, itzultzaileak, gidoigileak, terminologian adituak...) partaide izango diren gune bat sortu. Gune honek funtzio hauek izango lituzke:
  - Haur eta gazte hizkera eta erreperitorioak landu, sistematizatu eta zabaldu.
  - Haur eta gazteei zuzenduriko programa edo produktu bakoitzean erreperitorioak eta hizkera propioa landu.
  - Alorrean alorreko erreperitorioak landu: kirola, hizkera marjinala,...
  - Terminologiaren lanketan ari diren enpresen bidez, material hori guztia sistematizatu eta eskuragarri jarri beharko litzateke (paperean eta sarean), bestelako sorkuntza esparruetan dabiltzanek kontsultatzeko moduan: idazleak, musika-taldeen letra egileak, gidoilariak, irakasleak, aisialdiko begiraleak...
  - Haur eta gazteen erreperitorio bereziak propio landu eta sozializatzeko programak, sailak eta produktuak ekoiztu.

- Iragarle euskaldunak (eta batez ere erakundeak) ohartarazi ezinbestekoa dela euskararen presentzia hasiera-hasieratik bermatzea publizitate prozesuetan. Orobat ohartarazi publizitatean zuzentasuna eta jatortasuna egokitasunaren zerbitzuan daudela beti, eta ez alderantziz.

### Teknologia eta hedabide berriak

- Euskarazko produktuak eta zerbitzuak eskuragarri eta erakargarri egin. Bestalde, erakargarriak diren erdarazko produktu eta zerbitzuak euskaraz kontsumitzeko moduan jarri. Euskarazko edukiak ugaltu eta ezagutaraziz, haien kontsumoa bultzatu.
- Euskararen sarbidea bermatu teknologia berrietan, horretarako behar den garapen teknologikoaren bidez.
- Ikastaro edo hitzaldi sorta batzuk antolatzea, ikastetxeei zuzenduta, teknologia berriak ezartzean euskararen kalitatea atzenduta gera ez dadin.

### Beste jarduera esparruak

- Herri/eskualdeko hizkuntz ondarea (esamoldeak, hitanoa, toponimia, idazkiak, ahozko ekoizpena, abestiak...) jaso eta haur/gazteen eskura modu erabilgarrian ipini (unitate didaktikoak, web orriak, CDak...), erreperitorioak lantzeko baliabide interesgarri gisa:
  - Norberaren herriko/eskualdeko usadiozko formak
  - Sortu berriak
  - Beste herri/eskualdeetakoak
  - Nazionalak (komunikabideen bidez jasotak)
- Euskal Herriko haur eta gazteen arteko harremanbideak ugaltu, batez ere zonalde euskaldun eta erdaldunetako gazteen artekoak, eta Ipar eta Hegokoak.
- Eskolorduz kanpoko jardueren euskalduntze programei ekin (EBPN) eta haietako bakoitzera egokituriko erreperitorioak lantzea. Eskolorduz kanpoko jardueren esparrua izan daiteke hizkera ez-formalak eta afektiboak lantzeko esparrurik interesgarrien eta eraginkorrenetako bat; are gehiago kontuan izanik berezko lagunarteetara iristea oso zaila dela, herri txikietan izan ezik.
- Ikasketa edo/eta erabilera egitasmo sektorialetan ere, parametro hauek guztiak aplikatzea.

### Euskarazko edukien sorkuntza, hedapena eta gizarteratzea

- Haur eta gazteen euskarazko produktu eta zerbitzuen kontsumoa sustatu, eskaintza bermatuz eta ezagutaraziz.